# gaurko filmak

| | |
|---|---|
| **07 con el 2 delante** | ★ |
| Zuz.: Ignacio F. Iquino. 96m. Esp. 1966. | **11:00 La2** |
| **Llega un pistolero** | ★★★ |
| Zuz.: Russel Rouse. 90m. 1956. | **18:20 ETB2** |
| **Hammam** | ★★★ |
| Zuz.: Ferzan Ozpetek. 95m. 1997. | **20:40 Arte** |
| **Cocoon** | ★ |
| Zuz.: Ron Howard. 125m. AEB. 1985. | **20:55 F3** |
| **Cuestión de honor** | ★ |
| Zuz.: Michael Preece. 87m. AEB. 1998. | **22:00 A3** |
| **Les Fantômes de Louba** | ★ |
| Zuz.: Martine Dugowson. 105m. 2001. | **22:20 C+(f)** |
| **Capitanes de abril** | ★ |
| Zuz.: Maria de Medeiros. 114m. 1999. | **22:30 C+(e)** |
| **Le Battant** | ★ |
| Zuz.: Alain Delon. 120m. Fran. 1983. | **22:40 TF1** |
| **Perdona bonita, pero Lucas ...** | ★ |
| Zuz.: F. Sabroso, D. Ayaso. 86m. 1996. | **23:35 TVE1** |
| **Baisers volés** | ★★★ |
| Zuz.: François Truffaut. 95m. 1968. | **00:55 Arte** |
| **La Pepa trae cola** | ★ |
| Zuz.: Carlos Ballesteros. 106m. Esp. 1987. | **03:15 La2** |
| **El aroma del miedo** | ★ |
| Zuz.: Paul Marcus. 103m. AEB. 1995. | **04:45 A3** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |



**DRAMA ★**
**Capitanes de abril** Zuz.: Maria de Medeiros C+(e) 22:30

Ane Muñoz

## Maitasuna eta sexua Turkiako bainuetxe batean

**HAMMAM ★★★** **Arte - 20:40**

Zuz.: Ferzan Ozpetek. Akt.: Alessandro Gassman, Francesca D'Ajola. 95 min. 1997.

Italian bizi eta lan egiten duen Ferzan Ozpetek turkiarra, Arte kateak igorriko duen zinta interesgarri eta fresko honen zuzendaria da. Are gehiago, hauxe da Ozpeteken opera prima. Mundu osoan arrakasta eta sari ugari jaso zuen, merezita, gainera. Emakume batek senarraren benetako nortasuna eta joerak ezagutuko ditu, harekin Istanbulen kokatuko denean. Turkiako bainuetxe tipiko horietako baten inguruan garatzen da. Pertsonaiak ederki eratuak daude eta sinesgarriak dira, eta haien joanetorriak interesgarriak dira. Giza harremanak, laguntasuna, homosexualitatea, kulturarekiko lotura eta hainbat kulturen arteko txokea gai nagusiak dira, Ozpeteken lan guztietan bezalaxe.

**LLEGA UN PISTOLERO**
**★★★ ETB2 - 18:20**

Zuz.: Russell Rouse. Akt.: Glenn Ford, Jeanne Crain. 90 min. 1956.

Russell Rouseren (*The Thief*, 1952) lan interesgarrienetakoa Glenn Fordek, Jeanne Crainek eta zuzendariaren lagun Broderick Crawfordek Mendebalde Urrunean izango duten zuri-beltzeko abentura gozagarri hau duzue. Pistolari harro batek hura baino azkarragoa dela dioen beste pistolari are harroago bat hilko du. Guztiek heroitzat dute lehena; zehatzago, guztiek protagonistak eta haren emazte azkarrak izan ezik. Aktoreen lana azpimarragarria da.

**CUESTIÓN DE HONOR**
**★ A3 - 22:00**

Zuz.: Michael Preece. Akt.: Chuck Norris, Eddie Cibrian. 87 min. AEB. 1998.

Chuck Norris gihartsuaren miresleek soilik jasateko moduko polizia film arrunt honek mendeku baten istorioa erakusten du, akzioko eszena bortitzez josita dauden irudi tuntunen bitartez.

**CAPITANES DE ABRIL**
**★ C+(e) - 22:30**

Zuz.: Maria de Medeiros. Akt.: Stefano Accorsi, Fele Martinez. 114 min. Esp-Port. 1999.

Maria de Medeiros portugaldar aktoreak kameraren atzetik egindako lehen saiakera eskas samarra da, abiapuntutzat duen istorioa nahikoa interesgarria bada ere. Mariak txikitako oroitzapenak oinarritzat hartu ditu, Portugalgo historia berriaren atal garrantzitsu bat gogora ekartzeko. Hau da, 1974.urteko apirilean militarrek Salazarren erreximenaren aurkako altxamendua eragin zuteneko gau berezi hura, *Krabelinen Iraultza* bezala izendatutakoa. Zuzendariak rol garrantzitsua jokatzen du kameraren parean ere, Joaquim de Almeida ezinbestekoaren alboan.

**PERDONA BONITA PERO LUCAS ME QUERÍA A MI**
**★ TVE1 - 23:35**

Zuz.: Felix Sabroso, Dunia Ayaso. Akt.: Alonso Caparros, Jordi Molla. 86 min. Esp. 1996.

Ayaso eta Sabroso gidoigileek zuzendutako lan umoretsu arin hau Albacete eta Menkes bikoteak aurretik modan jarritako komedia korapilatsu horietakoa da. Zenbait elkarrizketa freskori esker atsegina gertatzen da, baina ez da film ona. Akzioa Lucasen heriotzaren inguruan garatzen da, eta aurpegi ezagunek antzezten dute, Pepón Nieto eta Jordi Molla tartean.

**BAISERS VOLES**
**★★★ Arte - 00:55**

Zuz.: François Truffaut. Akt.: Jean-Pierre Leaud, Claude Jade. 95 min. Fran. 1968.

Truffaut maisuak umorezko tonua aukeratu zuen eguneroko bizitza arruntatik hartutako istorio txiki, polit eta alai hau filmatzeko. Antoine Doinel, Truffauten pertsonaia kutuna, ikertzaile agentzi batean lan egiten hasiko da, zerbitzu militarra bete ondoren. Lehen ikerketa lan garrantzitsua zapata denda baten inguruan egin beharko du, eta hantxe, jabearen emaztearekin maiteminduko da. Oso film fresko eta gozagarria da.

# irratia




**RADIO EUSKADI.** Eusko Jaurlaritzako immigrazio zuzendari Omer Bertin Oke elkarrizketatuko dute gaur goizeko 09:15ak aldera. *Boulevard* saioa eta *Kultura.com* Gasteizko Artium museo berritik egingo dute gaur. *Boulevard*-en gonbidatu ugari bilduko dituzte: Ramon Rabanera Arabako diputatu nagusia, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako kultura sailburua, museoko zuzendari Javier Gonzalez de Durana eta abar. Unitate mugikorra Gasteizko kaleetatik ibiliko da, biztanleek museoaren inguruan duten iritzia jasotzeko. 13:40ean, *Kultura.com* saioan, Artiumeko zuzendariak Xabier Saenz de Gorbea arte kritikariarekin hitz egingo du, jarriko dituzten lehenengo erakusketen inguruan.

**EUSKADI IRRATIA.** San Markos egunaz mintzatuko dira gaur goizeko 09:30ean. Ondoren, Arantxa Urretabizkaiaren gogoetak iritsiko dira, eta Jakoba Errekondoren kontsulta zabalduko dute. 11:00etan, Vaiven antzerki taldearen *Murphy gainetik kendu ezinik* lanaz arituko dira.17:00etan, *Lauretan babel* saioan, lan istripuez eztabaidatuko dute. 20:00etan, *Gipuzkoa 2005 Plana*-ren berri emango dute *Lagunartean* saioan.

## ETB-1

**07:10:** Betimu.
**07:30:** Betizu.
Zulakin eta Alberto otsopeto.
Sakura, kartak zakura.
Yogi hartza.
Gadge inspektorea.
**08:55:** E-klipse@.
**10:00:** Herri musika sorta.
**10:15:** Ederra eta piztia.
Telesaila.
**11:05:** Benta berri.
**11:35:** Duplex.
**12:00:** Esanak esan.
**12:40:** Bidaide.
Uretako izakiak.
**13:35:** Betizu.
Shin Chan.
**14:00:** Gaur egun.
Albistegia.
**14:40:** Bertatik Bertara.
**15:10:** Sorginen laratza.
**15:55:** Mundu galdua.
**16:40:** Bidaide.
Azken borrokalariak.
**17:40:** Ikusgela.
**18:20:** Betizu.
Muka-muka.
Shin Chan.
Betimu.
**19:45:** Betizu
**20:20:** Iparraldearen orena.
Iparraldeko albistegia.
**20:28:** Gaur Egun.
Albistegia.
**21:05:** Bertatik bertara.
**21:45:** Goenkale.
Telesaila.
**22:35:** Sorginen laratza.
**23:55:** Hau komeria.
**00:20:** Harry Enfield eta bere lagunak.
**00:50:** Bakarrik edo...
**03:50:** Bertatik bertara.
**04:20:** Esanak esan.
**04:55:** Elkartasunaren bideak.
**05:25:** Euskal Herritik.
**05:50:** 64.
**06:20:** Amama sukaldari.
**06:35:** Ikusgela.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
**07:30:** Telediario matinal.
Luis Mariñas, Isabel Duran eta Valenti Puigek aurkeztutako elkarrizketa saioa.
**10:15:** Nano.
Telesaila.
**11:15:** Pobre diabla.
Telesaila.
**12:00:** Saber vivir.
Magazina.
**13:00:** Asi son las cosas.
**14:00:** Informativo territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazón de primavera.
Anne Igartiburuk aurkeztutako magazin saioa.
**15:00:** Telediario 1.
Albistegia.
**15:55:** Eguraldia.
**16:05:** La verdad de Laura.
Telesaila.
**17:00:** La fuerza del deseo.
Telesaila.
**20:00:** Gente.
Pepa Bueno eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
**21:00:** Telediario 2.
Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** Cuentame como paso.
Telesaila.
**23:30:** Nuestro cine.
(23:35) **Perdona bonita, pero Lucas me queria a mi**
Zuz.: Felix Sabroso, Dunia Ayaso.
Akt.: Alfonso Caparros. 1996.
**01:30:** Telediario-3. Albistegia.
**02:05:** Reyes y rey.
Telesaila.
**03:00:** Canal 24 horas.

## ETB-2

**06:55:** Del pais de los vascos.
**07:30:** Teknopolis.
**07:50:** Bonanza.
**09:30:** El punto.
Gonbidatua: Mayor Oreja.
**10:00:** Forum.
Gonbidatua: Joseba Agirreazkuenaga.
**10:35:** Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
El amor no es como lo pintan.
**13:15:** La cocina de Pedro Subijana.
**13:30:** Euskadi directo.
**13:30:** Navarra directo.
(Nafarroan).
**14:00:** Date el bote.
Lehiaketa.
**14:58:** Teleberri.
Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba.
Magazina.
**18:20:** Zinema.
**Llega un pistolero**
Zuz: Russell Rouse.
Akt.: Glenn Ford, Jeanne Crain. 1956.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri.
Albistegia.
**21:45:** Doc.
Telesaila
**23:45:** Stargate.
Telesaila.
**01:25:** Medias de seda.
**02:30:** Esta es mi gente.
**03:25:** Lo que faltaba.
**05:30:** Forum.
**06:00:** La botica de la abuela.
**06:25:** Gemas.

## A3

**07:05:** Princesa Sissi.
Telesaila.
**07:30:** Club Megatrix.
Wedding peach.
Tres amigos y Jerry.
Campeones.
EEK.
**09:10:** Boletin informativo.
**09:30:** El primer cafe.
**10:30:** De buena mañana.
Magazina.
**13:25:** Nada es para siempre.
Telesaila.
**13:25:** Informativos territoriales.
Albistegia.
**13:55:** Desesperado club social.
Malcom un the middle.
Los Simpson.
**15:00:** Antena 3 Noticias 1.
**16:00:** Yo soy Betty la fea.
Telesaila.
**17:00:** Sabor a ti.
**19:00:** El diario de Patricia.
**20:00:** Pasapalabra.
**21:00:** Antena 3 Noticias 2.
**22:00:** Zinema.
**Cuestion de honor**
Zuz.: Michael Preece.
Akt.: Chuck Norris, Eddie Cibrian. 1998.
**00:00:** Al descubierto.
**01:00:** Jag.
**01:55:** Antena3 Noticias 3.
**02:30:** Televenta.
**04:45:** Zinema.
**El aroma del miedo**
Zuz.: Paul Marcus.
Akt.: Helen Mirren, John Benfield. 1995.
**06:15:** Se ha escrito un crimen.